



Etxegintza
hizpide erdiko
gehigarri
berezia

2006ko ekainaren 9a, 72 zenbakia - Andoain eta Urnietan doan banatzen da

www.aiurri.com

GEHIGARRI BEREZIA

San Juan Batailatzaileko langileek greba gogortuko dute

Ekainaren 19tik aurrera 24 orduko greba egiteko erabakia hartu zuten langileek pasa den asteartean eginiko batzarraldian. Udal arduradunek greba politikotzat definitu eta unearen desegokitasuna kritikatu dute.

Grebak egin dituen lehen zortzi egunak ez dira baikor egoteko modukoak izan. Udal arduradunek ELA sindikatua- ren jarrera kritikatu duten bitartean, langileek greba gogortu egingo dutela iragarri dute.

Maiatzaren 30etik greba mugagabea daude San Juan Batailatzaileko zaharren egoitzako 34 langile. Nagusiki, lan baldintzak hobetzea aldarrikatzea dute xede. ELA sindikatua- tuak salatu duenez, Andoaingo Zerbitzuak egoitza kudeatzen duen enpresak eta baita Udala ere lan itun berria negoziatze- arri uko egin diote.

LANGILEEN JARRERA

Soldata parekatzea da gataz-



Alkatearekin tira-birak izan dituzte grebalariek pankartaren inguruan.

karen gakoetako. Greban dauden langileek prentsa oharrean adierazi bezala, "gure lan berdina egiten ari den udal langile batek, hilero 624,93 euro gehiago irabazten du". Grebalarien soldata %36 baxuagoa da eta aurtengorako %24koa izatea nahi dute. **Joseba Iturbe** ELAko ordezkaririk adierazi du greba deitu aurre-

tik urtebete eman dutela aldarrikapenak aurkezten, erantzunik jaso gabe. Grebara joatea erabaki zuten orduan, "gutxiengo zerbitzuak jakinarazteko Udaleko Ongizateko arduradunari eta Gobernu Batzordeko ordezkaritari gure aldarrikapenak aurkeztu genizkien eta haien erantzunaren zain gaude". Sindikatuko ordezka-

riak sektore berdineko beste eremutan ere akordioa lortu dela adierazi du, besteak beste, Tolosan eta Urretxun.

UDALAREN JARRERA

Juan Carlos Cano PP alderdiko zinegotzia, Udal gobernu taldearen izenean, greba gogortuko den albistearen harian, "egoitzaren funtzionamendua eta beharrezko diren zerbitzuak eskainiko direla bermatuko dugu". Greba deialdia ulergaitza eta politikoa dela dio.

Gatazka honetaz galde egitean, zaharren egoitza beste modura kudeatzeko aspalditik lanean dabiltzala erantzun dio Aiurri. Udaleko Gizarte Zerbitzuen baitan geratuko dela iragartzen du, "Egoitza kudeatzeko plegu berria azkar bideratuko dugu. Andoain Zerbitzuak enpresak jarraitzeari dagoeneko muzin egin dio eta patronatua aurreko hilabetean desegin genuen". Alegia, plegu berriak onartzen dituen beste enpresa batek kudeatu dezake- ela zerbitzua etorkizunean. Horregatik, Canorentzat lekuz kanpo dago horrelako greba deialdia burutzea.

Ez dirudi, beraz, irtenbide erraza eta azkarra izango denik.

Andoain aurrera herri arteko pilota lehiari



Donostia izango da herri arteko pilota txapelketako hurrengo aurkaria. Beste behin ere Arrate pilotalekua eta Andoaingo zaletu fidelak ezinbesteko izan ziren aurkaria gainditzeko. Urnietan, Beasain eta Arrasate atzean utzita, finalerdietara sailkatu da Andoaingo taldea.

Asteburu honetan Altzako frontoian Donostia izango dutue aurkari. Iazko irabazle izandako Hernani kanporatu zuten donostiarrek. Ez da, beraz, erraza izango.

Andoain

- Sanjuanen aurrerapena.
- Joxean Barandiaran elkarriketa.

2. or.
3. or.

Urnietan

- Ikasturte amaierako jaiak.
- Kantu kalejira Sanjuanetan.

4. or.
13. or.

InfoAiurri

- Hiazintza Fernandorenaren eta Jon Unanueren iritziak.

14. or.

Azkena

- Ikerketa soziologiko bikoitza Urnietan, datozen asteetan

16. or.

Hiru sokako minué-aren alde ez dugu lan handirik egin, baina bai zure automobilaren finantzaketaren alde.

LACETTI 1.4 SE 16V
AIRE EGOKITUA ETA 5 URTEKO BERMEA
SARRERARIK GABE
60€ / hilabetea - LEHEN URTEA
140€ / hilabetea - GAINERAKO 107 KUOTAK
Gasolina ibilgailutarako preber plana barne. %6,03 TAE

Chevrolet Lacetti

Giauto

902 345 225
Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 700 841
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 885 150
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da



Lacetti modelo 1.4 SE 16V (ez da irudiko modelo berbera). Salneurria: 11.974€ (gasolinako preber plana eta sustapena barne). Kuotak: 1etik 12ra 60€; 13tik 119ra 140€. Finantzaturiko zenbateko osoa: 15.999,35€. TIN %5,35. TAE % 6,03. Ikerketa komisioa %2,5 (299,35€). Beste sustapenekin metatzina. Eskaintzak 2006-06-30 arte balio du Penintsulan eta Balearetan. Finantzaketa: Banco de Crédito, S.A. RBE: 1514/06. Kontsumo mistoa (l/100 Km.): 7,1-8,8. CO² igorpena (Km./g.): 171-210. Hiru urteko bermea edo 100.000 Km-koa, bermea buruzko 23/2003 Legea aplikatzearen kalterik gabe, guri Chevrolet Servicio 5 kontratuko baldintzen arabera beste bi urte.



ARETO FUTBOL TXAPELKETA



Ongi Etorri taldea, aurtengo txapelketa.



Xixkuin taldea finalera iritsi zen baina txapela jantzi gabe geratu zen. Sailkapen orokorra horrela geratu da, hurrenez hurren: 3. Xaguxarrak 4. Galpar-soro 5. Son moix 6. Kixka 7. Ixildutarrak 8. Ormendi 9. Txalaka 10. Isaran 11. Kattenazio 12. Aker.

Jaia Ondarreta ikastetxean



Ekaineko lehen larunbata Ondarreta ikastetxearen jai eguna da. Ikasle, irakasle eta guraso asko izan zen egun osoan zehar. Ikasturtea amaitu aurretik, jai polita egin zuten Ondarreta ikastetxeko arduradunek.



Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak diruz
lagundutako hedabidea

Bi aste besterik ez dira falta San Juan jaiei hasiera emateko

Sanjuanen aurrerapena

Alberto Agirre abesbatzak *Salbe Gorena* kantatu orduko jai giroan murgilduko da Andoain herria. Ekainaren hogeita hiruan hasi eta hogeita seira bitarte musika, kirola eta bestelako hitzordurekin osatuko da egitaraua. Aldaketa askorik ez dakar aurtengoak. Protagonisten artean eskuz banakako txapelketa irabazi berri duen **Juan Martinez de Irujo** nabarmendu behar da. Ikusle sorta ederra bilduko dute **Gonzalez, Eulate, Elkoro** eta enparauk.

Hona hemen, atalka antolatuta, jaiaren laburpena:

HAURRAK

Txiki Band taldearen emanaldia ekainaren 24an izango da 13:00tan, Goikoplazan. 19:00tan Txikitruk animazio saioa Nafarroa plazan.

Biharamunean, **Gari, Montxo eta Joselontxo** pailazoak Goikoplazan izango dira 19:00tan.

Ekainaren 26an haurrek parte hartze handia izango dute. Goizez eta arratsaldez haur parkea izango da Goikoplazan. Arratsaldeko 18:00tan irtengo da ikastetxe ezberdinetako ki-deek osatzen duten **Haur dantborrada** Zumea plazatik. Goikoplazan amaituko da.

KIROLA

Profesional mailako pilotariak ikusteko Arrate txiki geratuko da. Ekainaren 23an izango da 23:00etik aurrera. Biharamunean erremontea, zesta punta eta pala motza erakustaldia izango da, 16:30tan hasita. Ordubet beranduago Iñaki Perurena ha-



Axeri-dantza prestatzeko entseguak hasi dira.

Martinez de Irujo txapelketa ekainaren 23an arituko da Arrate pilotalekuan, eskuz binakakoan

Urko, Doctor Deseo, Dickers, eta R taldeak nabarmen diren aurtengo musika eskaintzan

rrijasotzaileak saioa eskainiko du Goikoplazan.

Igandean San Juan saria proban lehiatuko dira txirrindulariak, 16:00tan hasita.

MUSIKA

Urko, Doctor Deseo, Dickers, eta **R** taldeak nabarmen diren aurtengo musika eskaintzan.

Musikak bezala bertsolaritzak ere goi mailako ordezkariak izango du San Juan egunean 19:30tan Goikoplazan eskainiko den saioan. Joxemanuel Oiartzabal gaijartzailearen esanetara arituko dira **Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Sustrai Colina, Anjel Mari Peñagarikano, Imanol Lazkano** eta **Mikel Mendizabal**.

ZIKIRO JATEA

Antolatzaileek jakinarazi dute ekainaren 22an amaituko dela txartelak erosteko epea. Salgai daude ohiko saltokietan. Menuaren prezioa: 16 euro.

Gutxi falta da jaien hasierarako. Ondo igarotzeko aukerarik ez da faltako.

KARTEL LEHIAKETA, IRABAZLEAK

Udalak jakinarazi du kartel lehiaketaren emaitza, hauexek dira sarrituak: 12-16 urtekoen artean **Aiora Arregi** izan da lehena, **Olaia Garcia**ren aurretik. 17 urtetik gorakoen artean **Nerea Uralde** izan da irabazle eta **Iñigo Etxebeste** bigarren.

Dispertsioaren aurkako mendi erromeria

Mendi martxa igandean

Dispertsioaren aurkako II. mendi erromeria izango da, **Etixerat** taldeak antolatuta eta eskualdeko hainbat mendi talderen babesarekin.

Aurten, **Andatza** izan da erromeria egiteko aukeratu den mendia. Hiru toki ezberdinetatik abiatuko dira mendizaleak. Batzuk Usurbildik abiatuko dira; besteak, Astigarratik eta Zizurkildik hirugarren talde bat irtengo dira. Hiru ibilbide horiek bat egingo dute Andatza.



Astigarraga, Hernani, **Andoain, Urnieta,** Lasarte, Usurbil, Orio, Añorga eta Zizurkil he-

rrietako taldeek bat egin dute presoen aldeko deialdi honekin.

ESKUALDEKO ALDERDI POLITIKOEN IRITZIA

Ordezkariekin solasean

Joxean Barandiaran. Andoain

*“Itxaropenez
beteriko une politikoa
bizi dugu”*

Unanibiaren izenpean aurkeztu zen Andoaingo ezker abertzalea. Alkate ohiak egungo udalgintzaren inguruko iritzia eman dio Aiurriri.



Joxean Barandiaran Ezama, alkate ohi.

Nola baloratzen duzue legez kanpo egon zareten udal agintaldia?

Joxean Barandiaran.: Oso zaila da balorketa bat egitea. Alderdien Legeak legez kanpo utzi gintuen eta baldintza horietan ezinezko egiten da politika egitea. Zailtasunak zailtasun, herri borondateari esker lortutako boto bakoitzak balio bikoitza duela uste dugu. Legeak lege eta zailtasunak zailtasun, udal ordezkari izateko adina boto lortu genuen. Udalgintzatik kanpo utzi gaituzte konstituzionalistek, gainerako beste alderdien isiltasun konplizearekin.

Udalgintzan parte hartzeko modurik izan al duzue?

J.B.: Aurreko erantzunean garbi geratu da zailtasunak besterik ez ditugula izan. Ezker abertzalea kanpoan utzita, ezer gertatu ez balitz bezala ari da Udala lanean. Aurreko agintaldian agintzen zegoen alderdia kontutan hartu gabe aritzea, herren lan egitea da. Eta antidemokratikoa.

Udalgintzan lanean izan direnen inguruan iritzia emango al zenuke?

J.B.: Gobernu taldeko hainbat ordezkari eta alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana soldatapean ari dira lanean, Udalaren kontura noski. Gastua izugarri igo da eta nik apustu egingo nuke kalean herritarrak ez duela atentzio gehiago nabari. Aurreko agintalditik hona gastua izugarri igo da eta zinegotzien eraginkortasuna ez da proportzio berean hazi.

Horregatik ulergaitza egiten zait hainbat gaiekiko Udalak erakusten duen moteltasuna: Sorabillako zebra-bideak, San Juan Bautista bataiatzailearen afera...

Datozen hauteskundeetarako aukerarik ikusten al duzue? Eta zentzu horretan, zein aurreikuspen egiten duzue?

J.B.: Itxaropenez beteriko une politikoa bizi dugu, horrelako aukera bat ezin da usteltzen utzi. Ezker abertzaleak Andoainen erakutsi du herrigintzan aritzeko lidergotza baduela eta horren adibide da 1999-2003 urteetan kudeatu genuen agintaldia. Asko gara eta egoera politiko berrian kide gehiago metatzeko aukera dugu.

Beraz, legeak lege eta mehatxuak mehatxu, baikor gara. Aurreikuspen ona egiten dugu.

Ezker abertzalea udalera itzultzeak zein modutan eragingo du?

J.B.: Argi dago onuragarria izango dela. Demokratikoagoa, parte hartzaileagoa izango da. Herri ekimen ezberdinek eskertuko dute, ezker abertzalea herritarrengandik eta herri nahiarengandik oso gertu dagoelako. Bizi Urnietakoekin bat nator ezker abertzalearen ildo herriaren hitza ordezkatzeko dela esaten dutenean.

OHARRA: Andoaingo eta Urnietako ordezkari politikoen elkarrizketei amaiera emateko, datozen bi asteetan bi herrietako alkateekin eginiko elkarrizketa bana argitaratuko ditu Aiurri astekariak.

DANTZARI TXIKI EGUNA ANDOAINEN



Urnietako Gure Ametsa dantza taldea, Goikoplazan ateratako



Soinuak Musika eskolako kideek kontzertu ikusgarria eskaini zuten.

“Gomendatzen dizut...” gazteentzako lehiaketa

Gomendatzen dizut” programak gazteek bidaiatzen duteneko esperientzia eta informazioa jaso nahi du. Gazteek bidaia bat egiten dutenean, lekuei buruzko informazio interesgarri asko biltzen dute. Edozein gomendio baliagarria da: ostatuak, lekuak, herriak, museoak, natur-guneak, jabetxeak, deskontu txartelak, gazteei zuzendutako ekimenak, paisaia ikusgarriak...

Gazte Informazio Bulegoen zeregina informazio hori jaso eta hedatzea izango da.

Gomendio guztien artean zozketa bat egingo da. Adinaren arabera, bi sari banatuko dira: MP3 bat 18 urte bitarteko gazteentzat eta bi pertsonentzat asteburu osoko egonaldia Euskal Herriko landetxe batean. Ondoren, gomendio guztien erakusketa egingo da Gazte Lokalean.

LEHIAKETA

BALKOI ETA LEIHO LORATUAK

- **Antolatzailea:** Andoaingo merkatarien Salkin elkarte, Udalaren eta Eusko Jaur-laritzaren laguntzarekin.
- **Ezaugarria:** Lore eta landareez gain lorontziak eta abar hartuko ditu kontuan.
- **Sariak:** 1. saria: 200 euro erosketatan eta oparia. 1. akzesita: 100euro erosketatan eta oparia. 2. akzesita: Buruntza jate-txean birezkat afaria eta oparia.
- **Betebeharra:** Andoaingo biztanle izatea.
- **Izen emateko epea:** Ekainaren 19a. Epaimahaia ekainaren 21ean eta 22an igaroko da parte hartzaileen balkoiak ikustera. Loreak eta landareak bezala, kontutan hartuko dira lorontzia eta beste-lako elementuak.
- **Info:** Xare, Iturbe, Kuttun merkatalguneak.
- **Sari banaketa:** Ekainak 24, larunbata. Axeri-dantza amaituta, Goikoplazan emango dira sariak 13:00etik aurrera.

DATORREN ASTEBURUAN IKASTURTE AMAIERAKO JAIK

Ikasturte amaierako jaiak

Bat baino gehiago honez gero opor usainean ibiliko da. Eguneroko zereginak alde batera utzi eta udako aisiaz gozatzeko irrikitan; tartean, ikasleak. Dagoeneko 2005-2006 ikasturteko azken txanpan dira

Urnietako Salesiar, Presentacion de Maria eta Egapeko ikasleak. Ikasturteari behar bezalako amaiera emateko jaialdiak prest dituzte jada.

Ikasle, irakasle eta gurasoek ikasturtea elkarrekin agurtuko dute. Salesiar ikastetxearen kasuan, gainera, dagoeneko jaialdia ospatu dute. Maiatzaren 24an egin zuten DBH, Lanbide Heziketa eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako ikasturte amaierako bilkura. Goizean zehar, joko ugari jinkana batean parte hartu zuten; tartean, futbitoan aritu ziren zezentxoak inguruan zituztela. Amaieran, txistorra hamaiketako ere dastatu zuten. Ikasle guztien arteko harremanak sendotu asmoz antolatzen dute jaialdia eta haien azterketa garaia garaiagatik maiatzera aurreratzen dute.

ASTEBURUAN, ZABALIK

Presentacion de Maria ikastetxeke zein Egapeko ikasle, irakasle eta gurasoek ikasturte bukaerako jaiak ekainaren 17an ospatuko dute. Zortzi egun barru, jokoek, antzerki saioek, tailerrek, eta otorduek bizitasuna emango diote asteburuan hutsik eta itxita izaten diren ikastetxe inguruei.

Egapek Idiazabal kalean duen eraikinean ikasleen gurasoek eta ikasle ohiek indarrak



Urnietako ikasleak, ia ateratako argazkian.

musean edo pilotan neurtuko dituzte. Neska talde urnietar bat gaztetxoentzako jolasak prestatu eta horiek antolatzeaz arduratuko da. Antzerki eta dantza emanaldiez gain, aurpegia margotzen ikasi nahi duenak makillaje tailerrean esku hartu besterik ez du. DBH 4.mailako ikasleak ere omendu-

ko dituzte, diploma bana eman- go zaie eta talde argazkia atera, Egapen ikasketak amaitzeaz dituzten honetan. Afari meriendaz gain, DBH 3.mailakoek jarriko duten txoznan ere izango da jan edana. Hortik ateratako dirua ikasturte amaierako bidaiarako erabiliko dute. Eguna amaitzeko, "Los Rubi" taldeak

gerri buelta mugiaraziko dio bati baino gehiagori.

Presentacion de Maria ikastetxean musika ere ez da falta izango. Txarangak alaituko du ekainaren 17rako antolatu duten ekitaldi sorta. Ikastetxeke patioan bildutakoek mailaz maila Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek

Salesiarrek egin zuten jaiak, beste bi ikastetxeen txanda iritsi da orain

prestatutako emanaldiak ikusiko dituzte. Sorpresa kutsua izango du ekitaldiak, egun horretara arte ez baitaki inork oholtza gainean zer emankizun eskainiko duten. Itxurazko sorgina izateko behar den guztia ere irakatsiko diete Amalur taldekoek ikasleei. Edabeak prestatu, sorgin jantzia diseinatu edota horien juramendua nola egiten den ikasiko dute. Haurrentzako filmak ere proiektatuko dituzte. Ia eguraldiak ez duen kale egiten.

IRTEERAK

Ikasturtea txangoak eginez amaitzea, beste alternatiba bat da. Hala egin zuten ekainaren 2an Salesiarretako Lanbide Heziketako ikasleek. Adarra mendira igo ziren. Presentacion de Maria ikastetxeak, urteroko irteerari ere eutsiko dio aurten. Ekainaren 24an, Lekunberriko Mendukilo kobak, Azpirotz edota Ultzama inguruak ezagutzeko tartea hartuko baitute guraso eta ikasleek.

PRESENTACION DE MARIA

Ekainak 17, larunbata

10:00 Meza.
11:00 Jokoak eta ekitaldiak patioan.
12:45 Ikasleen bazkaria patioan.
14:00 Haurrentzat filma.

14:30 Helduen bazkaria.

15:30-18:30 Sorginei buruzko tailerrak, Amalur taldeak antolatuta.

19:00 Askaria.

20:00 Jaialdiaren amaiera.

Ekainak 17, larunbata

10:30 Esku pilota txapelketa
11:00-12:00 Ikasturteko diapositiba eta bideoen ikuskizuna.
11:00-13:00 Jokuak, makillajea.
16:00-19:00 Argazki kiniela.

16:00 "Agurra" eta ikasleen emanaldiak.

17:00 Mus txapelketa.

17:00-19:00 Ikasleen artelanen erakusketa.

18:00 Esku pilotako finalak.

19:00 DBHko 4.mailako ikasleei diploma banaketa. Ondoren, sari banaketa.

20:00 Afari merienda.

21:00 Bingoa.

22:00 "Los Rubi" taldea.

Urnietar hori: bat egin gurekin, Bat egin Aiurriekin

zure ekarpenarekin hobetuko dugu astekaria

Aiurri iraunaraziko dugu... zuk laguntzen badiguzu

Aiurri, Urnietako nortasun hitzak

Izen Abizenak
Helbidea
Telefono zenbakia
Jaiotze urtea
Kontu Korronte zenbakia

Sua piztu aurretik, kantu emanaldia eskainiko da

Kantu emanaldia San Juan bezperan

Gertu ditugu San Juanak. Bezperako suak augurio txarrak uxatzeko unea iristear da. Urteko gauek motzena herri guneeetako eta mendietako sutzarrek argitu ohi dute. Baita Urnietan ere. Aurtengo, ordea, ezberdina izango da.

Plazido Muxika plazan pila-tuko diren hondakin eta beste-lakoei su eman aurretik, kantu emanaldia eskainiko da. Txanbolin txistulari elkarteak eta Egape ikastolak antolatu eta Presentacion de Maria eskolak eta Udalak lagunduta, gau magiko horri euskal kantuekin ongi etorria emango diote.

Ekitaldiko protagonistak haurrak izango dira. Mikrofonoetatik abestu eta gidaritzan lanak egin eta bertan bildutako guraso, senitarteko eta lagunak kantatzera animatuko dituzte. Haurrek abestutakoari musika jartzeko, gitarra, baxua, eskusoinua, txistua eta bibolina jotzen hainbat musikari izango dira. Famili giroan herritarrak abesten jarrita, antolatzaileek ekitaldian bertarantzen den orori parte hartzeko aukera eskaini nahi die.

Abestien inguruan, lehenik ere ekitaldiak antolatu izan dituzte antolatzaileek. Egapeko ikasleek duela bi urte kantu txapelketa batean esku hartu zuten. Handik gutxira jendea euskal girora hurbiltzeko kantu afaria antolatzea otu eta hortik, San Juan bezperako ekimena abian jartzeko ideia bururatu zitzairen. Hala, Udalarekin eta Presentacion de



Gau magikoari euskal kantuekin ongi etorria emango diote parte hartzaileek.

Maria ikastetxeko musika arduradunarekin hitz egin zuten. Haien proposamena onatzen jo zutela ikusita, aurrera doaz ekimenerako prestaketa lanak.

SAIORAKO EUSKAL KANTUEN CD-A

Ekainaren 23an dena prest izateko, alde aurretik CD bat osatu dute euskal abestiekin eta horien karaokearekin. Horiek, soilik, ikasleen artean banatu dituzte. Hartara, eskolan eta etxean ikasleek abestiak lantzeko aukera izango dute, gurasoekin batera.

Oskorriren euskal kantak Lourdes Iriondo eta Xabier Leterenekin tartekatuko dituzte. Lourdesen omenez, haren abesti "Gazte gera gazte" hautatzea erabaki dute eta baita, besteak beste, Erramun Marti-

korenaren "Xalbadorren heriotzean" abestia ere.

SUA AURREKO GIROTZEA

2006koa ez da izango San Juan bezperan lehen aldiz egin den musika saioa. Duela 10 urte ingurutik Txanbolin taldekoek txistua jota kalejiran ibili izan dira. Gerora, txistulariez gain, beste musika instrumentu batzuk sartu zituzten: txalaparta, trikitixa... Behin edo behin koroak ere parte hartu izan du. Duela bi urte, taldea osatu nahian, antzerki parodia bat ere egin zuten. Oso emaitza onak izan zituen baina herrian antzerki talderik ez dagoenez, ordutik ekitaldi hura ez da errepikatu. Ia aurtengo kantu saioak aurrera jarraitzeko modurik duen.

Hogeita bederatzi partaide kategoria ezberdinetan banatuta

Argazki Rallya, sailkapena

Iragan ostiralean banatu ziren XIII. Argazki Rallyaren sariak Lekaio Kultur Etxean. Bertan bildutakoekin sari-tuen izen abizen berri eman, bakoitzari zegokion saria jaso eta parte hartzaileen diapositiba emanaldia eskaini zen.

Lehiaketa bi taldeetan banatuta zegoen, adinaren arabera sailkatuta. 14 urtetik beherako hamalau lagunek esku hartu zuten; helduen artean, denera,

hamabost. Hauek dira sari-tuak:

14 URTE ARTE

14 urtetik beherako kategoria (saria, trofeoa):

- 1-Iñigo Madina . . . 111 puntu
- 2-Maider Iriberrí . . . 109 puntu
- 3-Maria Alkiza . . . 107 puntu

HERRIKO ONENA:

- 1-Javier Muriana . . . 123 puntu (100 euroko saria)

- 2-Maitane Bernardo . 117 puntu (50 euroko saria)

DIPOSITIBA ONENA:

- 1-Jon Oñate (450 euroko saria eta trofeoa)

ARGAZKI RALLYKO HERRIKO ONENA:

- 1-Xabier Alkorta . . . 123 puntu (150 euroko saria eta trofeoa)
- 2-Adolfo Vazquez . . . 127 puntu (100 euroko saria)

Euskara eskualdean




Lasarteko Aduriz, Astigarragako Tximela eta Hernaniko Hator aholkularitza enpresek eta eskualdeko udal ordezkariak 2007. urte amaiera arteko euskararen alorreko hitzarmena sinatu zuten asteazkenean.

Buruntzaldeko Udalek, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek, lanbide heziketako ordezkariak eta

EMUN hizkuntza aholkularitzak esku hartzen duten ekimenaren baitan, 2005-2006 ikasturtean 27 enpresa bisitatu dituzte. Lan horren ondorioz, arestian aipatutako hiru enpresek euskara plana abian jarri dute. Horiekin dagoenez Buruntzaldeko hamar enpresek abian dute euren eremua euskalduntzeko prozesua.

Mikel Lasa, Urnietatik Madrilera



Pozik egon daitezke Salesiar ikastetxeko arduradunak, haien ikasle den Mikel Lasak telekomunikazioko eta elektrizitateko instalatzaile gazteen Gipuzkoako saria irabazi baitu. Instagi erakundeak horrela erabaki du eta orain Madrilera lehiatuko da estatu osoko ikasleekin. Zorionak ikastetxeari eta baita Mikel Lasari ere!

Autobus zerbitzua

Gipuzkoako garraiobide publiko sarea bateratu eta koordinatu asmoz, iazko azaroaren 23an Lurraldebus S.L. sozietatea sortzea erabaki zuten alorreko hamar enpresek eta Foru Aldundiak. Sinatzaileen artean, Urnietako ibilbideaz arduratzen den **Gara-yar Autobusak** S.A enpresa dago. Horren ondorioz, enpresa hori berritze prozesuan da. Jada, autobus batzuk margotu dituzte, baina oro har, aldatetako pixkanaka txertatu dituzte; hala nola, makinaria eta txartel berria, zerbitzuak indartzea. . .

Eula sagardotegia, finalista

Urnietako Eula sagardotegia finalistaren artean sailkatu zen larunbatean Donostian ospatu zen 5. Sagardo Lehiaketan. Botilaratutako sagardo naturalaren kalitatea baloratu eta saritzea zen Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuen lehiaketaren helburua. Herrialdeko 15 herrietako 25 sagardo ekoizleek esku hartu zuten. Adunako Zabala sagardotegiak irabazi zuen txapelketa.

Herriko pilotariak, sasoi onean

Urnietako 1 taldea (**Xabier Ansa** eta **Unai Garin**) Gipuzkoako Alebilen txapelketako final laurdenera sailkatu da. Larunbat honetan, Azkoitiko Anaitasuna taldeko bikotearen aurka jokatu dute 16:00tan Donostiako Loiola auzoko pilotalekuan. Bestalde, **Mikel Garmendia** urnietar pilotaria Usurbilgo Torneoako finalera ailegatu da. Añorgatarrei aurre egin beharko die. Igandean 10:00etatik aurrera, Usurbilgo pilotalekuan.



JON UNANUE • URNIETA

Fernando Muñozguren

Euskalgintzak mila aurpegi ditu, onak eta txarrak, eta gero eta jende gutxiago dabilen arren bertan lanean, badira batzuk aski ezagunak, gizarte mailan oihartzuna duten emakume eta gizonak, eta badira beste asko nahikoa edo oso gordean dabiltzanak lanean, aspaldiko urteetan. Fernando Muñozguren azken horietakoa dugu. Ez duzue ezagutuko ez Andoaingo ez Urnietako irakurle gehienek, eta gizon horri zor diogu herrietako euskara elkarte eta herri aldizkari eta komunikabideetan egin den bide jada luze samarrean aitzindari eta biderrakusle ibili izana. Azken urteetan berriro ere hezkuntza mundura itzuli den arren, urteak egin zituen Eibarko Udaleko euskara arduradun gisa, eta urte gehiago egin ditu ogibidez kanpoko euskalgintzan, Eibarko *Eta kitto!* euskara elkartearen eta aldizkariaren eta Zarauzko *Txaparro* Euskara Elkartearen, besteak beste, orain ez bainaiz hasiko bere curriculum oparoa xehetzen.

Azken hilabeteetan, ordea, ohikoa duen jardunetik aldendurik dabil, gaisorik dagoelako. Ez dauka bi egunetan sendatzen den gaisotasun horietakoa, eta aldendurik dabilela jakite hutsak halako hustasuna-edo nabari arazten dit nanoeuskalgintzaren gure esparru honetan. Bai, ongi esan dut, nanoeuskalgintza. Euskarak etorkizunik izango badu, etorkizun hori eman behar zaio, funtsean, herriz herri eta auzoz auzo egindako lanean. Inork esan dezake, beraz, nahikoa gurekela mikroeuskalgintza esatea, baina horri lan txikia izatearen adiera har baitakiok, hobe joko dugu “nano-“ aurrizkiarekin deitzea. Nanoeuskalgintzaren oinarri ezinbestekoan handia da Muñozgunerez dugun beharra.

Ez natzaio bisita eske joan, batek ez dakielako horrelakoetan nola jokatu eta ez duelako *zama* izan nahi, baina tarteka gogoan hartzen dut eta elkarrekin Donostiako Easo plazan egin genuen azken bilera berritzen dut, nahiko etsigarria gertatu zitzaiguna euskalgintzan aurrera egiteko zabalitzen ari zaigun bide meharra ikusirik. Euskararen erabilera zabaltzeko eta suspertzeko jarduerak eta ekintzak

burutzea –batzuek uste dutenaren kontra– erronka benetan zaila da, eta gure gizartearen euskarak egunegun lekuri irabaz dezan antolatuta behar direnak antolatuko badira, zoritxarrez ergelkeria asko entzun behar da batean eta bestean, gizarte honetan eragile direnengandik askotan, eta eroapena behar da, pazientzia handia.

Gizon horri zor diogu herrietako euskara elkarte eta herri aldizkari eta komunikabideetan egin den bide jada luze samarrean aitzindari eta biderrakusle ibili izana

Gizon burutsu eta osoa, hark euskara biziberritzeko egin beharrekoaz eman ohi dituen analisi eta olozpenak aintzat hartu beharrekoenetzat izan ditut beti, eta hala uler dezakezue, horrenbestez, hura urrundurik ikusteak sortzen didan kezka.

Zorionez, barre egiteko -eta gustora gainera- aukerarik ere izan dut Fernandorekin. Gogoan dut behin, bera Euskal Herriko Euskara Elkartearen Federazioko lehendakari zenean (*Topagunea* deiturikoa), bilera batera joan ginela erakunde batera, bertako arduradun eta teknikariek hitz egitera. Hiruzpalau lagun ginen, eta bilerara sartu aurretik esan zigun: *orain sartuko gera, eta halakok bere filmina eta grafikoak atera eta bonbardeatzen hasiko dek, datuak eman eta eman isildu gabe. Azkeneko zuen amaren izenarekin ere ez zerate akordatuko!*

Eta halaxe izan zen. Bileran ez nintzen oharturikoaz gogoratu, baina bai atera ginenean, eta barre-algara batean joan nintzen kotxeraino. Ateraldia eta egoera hura gogoratzen dudana baikoitzean barre egiten dut gustora. Bide batez esan, beste askotan bezala, bilera hartan ez genuela ezertxo ere aurreratu.

Fernando ezagut zenezaten nahi nuen. Berri ez dio, noski, grazia handirik egingo, baina ezagutzera eman beharra dago ere isilean atsedetik gabe lanik handiena toki txikienetan egiten ari den jende hori, eta Muñozguren horretan badu, behintzat, merezimendu handirik.

Besarkada handi bat bidaltzen diot orri honetatik –Aiurri bera bidali behar harko diot-, eta ezagutzen eta estimatzen dugun guztiongandik behar hainbeste adore eta maitasun har eta somatiza dezala lehenbailehen osatu eta lanera –gure lanetara, alegia– itzultzeko. Animo!



HIAZINTO FERNANDORENA • URNIETA

Gurea noizko ote?

Hura bai aske, Montenegro esan nahi dut, eta gu ez? Joan den igandean aldarrikatu ahal izan zuen honek bere independentzia, iragan maiatzaren 21ean ospatu erreferendumaren ondorioz. Harrezkero, hi hor eta ni hemen gertatzen dira Serbia eta Montenegro. “Hi bahaiz, ni banauk” esango lukete gure Iparraldeko euskaldunek. Jakingarri zaigu Serbia Estatuordezkaririk ez zela agertu igandeko ekitaldi honetara, nahiz hitzak eder eta putzak min erakutsi dituzten serbiar agintariek Ez naiz harritzen. Beste baten antzera “una, grande y libre” zen Jugoslavia handi hura toki onean gelditu da eta, izan ere! Bata bestearen ondotik, urte gutxitan, ospa egin diote Eslovenia, Kroazia, eta Bosniak, eta orain Montenegrok, delako Jugoslavia hark Serbiaren muga soiletara bildu behar izan duelarik. Lehengo izatea bakarrik ez, izena bera ere galdu du jadanik. Aurrerantzean, Serbia eta kito.

Gauza bat bururatzen zait eta Serbiaren ezin eraman horrek baduela ene ustetan honako datu honekin ikustekorik, itsasorako irtenbiderik gabe utzi duela Estatu berriak nagusi oia. Espainiaren kasuan, itsasoz inguratua dagoenez, uste dut ez litzatekeela horrelakorik gertatuko.

Herrialde txikia da Montenegro. Agidanez, 650.000 biztanle baino ez ditu, baina guk baino zorte hobea izan du 1878 urteaz geroztik desira betean bila zebilen helburua lortzearekin. Europako aire berriei esker, noski, egin da bere buruaren jabe. Gurea berebat, E. Herria, ez da sobera handia, baina gure “geu” izan nahi hori geroz handiagora doan susmoa daukat. Begiak erne ditugula, bazterrak ikusi eta miratu besterik ez daukagu!

Alabaina askoz luzeagoa dela esan behar gure lehenaren historia. Ekainaren azken igandean (hilabete honen 25ean aurten) ospatu ohi da “Noingo Gudua” deitu ekitaldi gogoangarria izen bereko herriko mendixka batean. Hor, leku horretan, eta Amaier eta Hondarribian, galdu zuen (1512) Nafar Erresuma izenez ezagutu zen Europako lehen estatuetarik batek, euskal estatuak, eta sartu ondo buruan, Es-

painia bera estatu izan aurretik nortasuna izan zuen estatuak. Euskaldun guztiok izan behar genuke hau oso gogoan, hitzetik hortzera ez diezaguten muturrera bota, esaterako, historiarik ez duela gure herriak, Euskal Herriak ez duela existitzen, Espainia dela nazio bakarra, etab. etab..

Karlistada biek ere ezinegon latza izan zuten, baina haiek ere galera gertatu ziren guretzat. Sabin Arana etorri zen gero, eta berebizikoa izan zen honen ahalegina, birformulatu egin zuelako E. Herriaren nortasuna, baina oraingoek ez bezala, ez soilik hitz ederrez herriari mezu zuzenduz, biziaren entrega osoa eginez gainera. Alderdia etorri zen gero eta ehun urte, bederen Alderdi Egunean, “Gora Euskadi” oihukatuz eta botoak bideratzeko modua eginez. Iduri du, azken hogeita bost urteotaz ari naiz, arrisku handirik ez duela jokatu jende honek eta erosotasuna zein sakela izan dituela bidelagun. Sabin maisuaren antz arrastorik batek berak ere. Oroit nahigabe askoren artean behin eta birritan kartzelako ziega iluna pairatu izana zela hura.

Orain badirudi udaberriko haize gazteen ufadak astindurik gabiltzala guztiok, batzuek eta besteak. Dena den, kalean barra-barra esaten dena da, ETA aitzakia polita izan dela urte guztiotan zehar. Honek su-etena iragarri duenez geroztik sortu direla hemen komeriak. Nori bota orain errua? Etxe batean ere ona izaten da errudun bat izatea, seme bat, aita edo amona, bertan gertaturikoen erru guztiak bere gain jasoko dituen, beti-beti hau errudun ez izan arren.

Inoiz esatea ere ausartu ez garen hitz mardulak, darabiltzagu aho betean egun: autodeterminazioa, herriak duela azken hitza, erreferenduma...

Inoiz esatea ere ausartu ez garen hitz mardulak, eta arriskugarriak zirenak darabiltzagu aho betean egun: autodeterminazioa, herriak duela azken hitza, erreferenduma, presoen protagonismoa, ezker abertzalearen apartheida, independentzia, elkarrizketa, mahai anitzaren osaketa...

Hala fede bazen garaia, gauza bakoitzari bere izenez deitzen hastekoa, eta are, bada garaia hitz potzoloetatik ekintzetara pasatzekoa ere. Ez al diozu hala irizten?

Hi hor eta ni hemen gertatzen dira Serbia eta Montenegro. “Hi bahaiz, ni banauk” esango lukete gure Iparraldeko euskaldunek

Inoiz esatea ere ausartu ez garen hitz mardulak, darabiltzagu aho betean egun: autodeterminazioa, herriak duela azken hitza, erreferenduma...

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bazkaria

INISTORRA

Ekoizlea: **ERROITZ**
KALITU MUGATUA

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerri Biltzarra eta Urrietako Inistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:

Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urrietako egoitza:

San Juan Plaza, 9 20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Ekoizpena: erroitz@erroitz.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:

Ainhoa Gil, Aritz Gorriti, Jon Ander Ubeda eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate

Arduraduna: Fernanda Irazu.

Argazkilariak:

Xabier Ubeda.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia (Huarte-Iruñea).

Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:

Aitziber Arreseigor.

Banaketa

arduraduna: Xabier Ubeda.

Banatzaleak:

Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi, Urnieta: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

EKAINAREN 9TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Pilota

Andoain

- Herri arteko pilota txapelketa Finalerdiak, joanekoak: **Donostia-Andoain** Ekainak 11, igandea Alzako frontoia Finalerdiak, itzulikoak: **Andoain-Donostia** Ekainak 16, ostirala Arrate frontoia, 20:30.

Odol emaileak

Andoain

- Ekainak 13, asteartea Anbulatorioa

Irteerak

Andoain

- Deba-Kalbario-Olatz-Mutriku Ekainak 11, igandea

Eguzkitan blai

Urnieta

- Uztailean Ludoteka edota Jolastu euskaraz ekimenetan parte hartzeko aukera eskaintzen die haur eta gazteei Urrietako Udalak. Izen emateko epea: Ekainak 6. Telefono zenbakia: 943 008 033 E-posta: euskara@urnieta.org

Zinema

Urnieta

- "Bajo cero" filma ikusteko aukera Saroben. Ostiralean, 22:00etan eta igandean 16:00etan. 2,5 euro.

Euskara

Urnieta

- Inistorra eta Aiurriren eskutik, harpidedunak eskuratzeko kanpaina. Aiurriko egoitza, San Juan plaza 9 Goizez eta arratsaldez, astelehene ostiralera Telefono zenbakia: 943 331 455. E-maila: urnieta@topagunea.com
- Urnieta fruitategia** Idiazabal kalea, 20

Musika

Andoain

- Pablo Milanes, Bastero Kulturgunea** Ekainak 11, igandea. 20:00

Ikastaroak

Urnieta

- Uda honetan, tenisa, eskalada, igeriketa, surfa eta hipika kirol modalitateen inguruko ikastaroak eskainiko ditu kiroldegia. 16 urtetik beherako gazteei zuzenduta dago. Taldea osatzeko gutxieneko pertsona kopuruak izena eman beharko du; taldea osatzen ez bada, izena eman dutenei dirua itzuliko zaie. Izen ematea: 9.00-13.00 artean, Udal Kiroldegiko bulegoetan.

Erakusketa

Urnieta

- Lekaioko ikasleen eskulan eta pintura erakusketa: 3D koadroak, birziklatzeko materiala, grabatuak, pintura egurrean, pintura... Ekainaren 13ra arte, Lekaion.

Irteera

Urnieta

- Euskara Sailak antolatuta Iparraldera eta Nafarroara irteera. Irulegiko bondegia bat, Elizondo eta Bertizko lorategiak bisitatzeko aukera. Izen ematea: Lekaion. Urrietarrek 30 eurotan; herrian erroldatu gabekoek 36 euro. Ekainak 18, igandea

Andoain

- Gazte Lokalarekin, Bilbora irteera. Josu Arregi mountain bike-ko txirringulari gaztea animatzeko irteera. Ekainak 17, larunbata

Trabesia

Urnieta

- Urrietako XI. Mountain Bike Trabesia, Udalak antolatuta. Irteera ordua: 10:00etan udaletxetik. Helmuga: Kiroldegian. Izen ematea egun berean: 10 euro; aurretik 8 euro www.herrikrossa.com webgunean. Kamiseta bana, sariak, kopak, kirol materiala, betaurrekoak eta kaskoak banatuko dira. Mountain Bike bat zozketatuko da parte hartzaileen artean. Informazio gehiago Kiroldegian: 943 008 328. Ekainak 11, igandea

Hitzaldia

Urnieta

- "Prestakuntza eta informazioarako topaketak: emakumearen gizarte eredu-terako alternatibak. Osasunerako bidea". Ekainak 13, asteartea Lekaio, 17:30.

Zorion-agurrak:
aiurri@topagunea.com



ZORIONAK

Eider Lizaso López etorri da mundura! Jaio dela Latzeko kimu berria ekainaren 2an. Zorionak Jon eta Amaia gurasoei, aiton-amoei eta familia osoari! Osasunez egin ditzala bere lehen negarrik gurasoak lo direnean esnatuz.

URNIETAKO LANKIDEAK ETA LAGUNAK

KULTUR ASTEA

EGAPE IKASTOLA

Ekitaldi guztien aurretik, txalaparta saioak. Aretoa: Sarobe

- Ekainak 13, asteartea** 18:00 LH 6. koen musika saioa eta LH 2. eta 4. koen antzerkia.
- Ekainak 14, asteazkena** 18:00 Euskal dantza emanaldia.
- Ekainak 15, osteguna** 18:00 LH 2. eta 4. malakoen antzerki eta kitarra emanaldia.
- Ekainak 16, ostirala** 18:00 LH 5. mailako antzerkia.

KZGUNEA

IKASTAROA

Iraupena: 20 ordu
Ekainak 19-ekainak 30
Astel-ostir: 16:00-18:00
Ziurtagiria lortzeko
Ekainak 23, ostirala. 18:00-20:00



11-14 urte bitarteko gazteak (1992tik 1994era jaioak)

A Uztailaren 3tik 6ra.

Egun bateko jarduerak eta txangoak

- Eskalada, esgrima, funky dance... Snorkela
- Santa Klara ugartearen Lauazetako parkea
- Egunkari batera bisita gidatua

B Uztailaren 13tik 16ra. Oncinedako

aterpera irteera, Lizarran:

- Piraguismoa Gynkana
- Espeleologia Urederrara irteera

Izena emateko epea: ekainaren 23ra arte. Prezioak: A: 20 euro. B: 50 euro. A+B: 60 euro.

14-16 urte bitarteko gazteak (1989tik 1991era jaioak)

Ekainaren 26tik 28ra. Lizarrako kanping-erara irteera. Jarduerak, besteak beste:

- Piraguismoa Zubi-jauzia Tirolinea

Izena emateko epea: ekainaren 20ra arte. Prezioa: 40 euro.

Urrietako gaztelekuak

943 009 555



943 333 973

Urrietako Udala Haur eta Gazte Saila

gazteria@urnieta.org



GAI EZBERDINEN INGURUKO GALDEKETA URNIETAN

Ikerketa soziologikoen hilabetea Urnietan

Bi ikerketa soziologiko ezberdin burutuko dira Urnietan hilabete honetan. Lehena, Buruntzaldeko Udal Euskara Batzordeek sustatu dute eta, bigarrena, San Markoseko Mankomunitateak.

A iurri astekariak orain bi aste iragarri bezala, euskara gaitzat hartuta inkesta burutuko da Urnietan eta Andoain herrietan. Ikertalde taldeak telefono bidezko 335 inkesta egingo ditu egun hauetan, gehienbat tokiko hedabideen ingurukoa.

Herri edo eskualde mailako ikerketak ez dira oso ohikoak. Bada, bitxia bada ere, egun beretsuetan bigarren ikerketa soziologikoa abiaraziko da Urnietan. Aurreko ostegunean San Markoseko Mankomunitateak herritarrek birziklatzearekiko duten jarreraz galde egingo duela iragarri zuen, Donostian emandako prentsaurrekoan. Ekainaren 19an hasi eta 23ra bitarte, Gipuzkoako hamar herritan 3.437 inkesta egingo dituzte. Aukeratu dituzten herrien artean daude Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil, Donostia eta Urnietan. Besteak beste, edukiontzi bakoitzean utzi beharrekoaren ezagutzaz edota etxe bakoitzean nork banatzen duen zaborra



San Markoseko Mankomunitatearen kanpaina berria.

galdetuko da. Mankomunitateak irailean argitaratuko ditu ikerketaren emaitzak, modu globalean eta udalerrika.

Urnietan, beraz, ikerketa ba-

karrarekin nahikoa ez eta bi ezberdin burutuko dira denbora tarte berean. Batean edo bestean, iritzi eske urnietar askorengana joko da aste hauetan.

ZENBAT ETA GEHIAGO, ASKOZ HOBE

Horixe da Mankomunitatearen leloa eta guztiaren gaineratik bereizmen mailari garrantzia



Ekainaren hemeretziaren hasi eta hogeita hirura bitarte, Gipuzkoako hamar herritan 3.437 inkesta egingo ditu San Markoseko Mankomunitateak

eman nahi diote. Zaborra birziklatu behar bada, herritar orok hasieran bertan ondo bereiztu behar du birziklatzen duena. Biztanle guztiek ez omen dute berdin jokatzeko eta premiazkoa da familiakide guztiei gogoraraztea zuzen bereizi behar direla hondakinak. Beste modu batera esaten ari dira ez birziklatzea bezain kaltegarria dela narrats birziklatzea.

San Markos Mankomunitateko kanpaina uztailaren hamarrera bitarte luzatuko da. Denera, 192.200 euro inbertituko da karteletan, pegatinean, sukaldean ipintzeko posterretan edota telebistako eta irratiko iragarkietan. Dagoeneko kanpaina martxan dago.

Igerilekua, datorren ostegunean zabalik

H ilaren 15ean zabalduko dute Urnietako igerileku estali gabea eta irailaren 15era arte zabalik izango da. Goizeko 10:00etatik iluntzeko 21:00ak arte heldu zein gazteek gorputza freskatu, kirola egin edota inguruko belardian etzanda egoteko tarte hartuko dute.

PREZIOAK

Urnietar edota Buruntzaldea bailarako herritar ugari bertaratuko da. Igerilekuan sartzeko Buruntzaldeako bazkide txartela erakutsi edota sarrera ordaindu beharko da; helduek, 4,50 euro eta 21 urte artekoek 2,80 euro. Sarrerak egun osorako balioko du. Bainurako

txapela, txankletak eta bainu jantzia eramatea beharrezkoa da; igerilekura sartu edota irterakoan dutxatu eta monitorrean oharrei kasu egitea ezinbestekoa; eta igerilekuan erretzea eta jatea debekatua. Zortzi urtetik azpikoak heldu baten lagunduta soilik sar daitezke igerilekura.

IKASTAROAK

Urnietako eta Andoaingo Udal kiroldegien ekimenez, hainbat ikastaro eskainiko da udan herri batean eta bestean. Dagoeneko informazio guztia kiroldegietan aurki daiteke. Aiurrik datorren astean argitaratuko ditu udako kirol eskaintzak.



Datorren astetik aurrera zabalik izango da igerilekua.